

DONOSTIAKO UDALA ETA AÑARBE BORROKAN “ESTOLDAKO MUNSTROA”REN AURKA

- Hiri-uraren sektorean diharduten erakundeekin bat egiten du, eta haietako ehunkak sinatu duten atxikitze aitortpenarekin, komuna modu egokian erabilia izan dadin sentsibilizatzeko kanpainak egiteko
- Toallatxoak saneamendu-sareak buxatzen dituzte eta ingurumen arazo larriak eta gailak ekonomikoak sortzen dituzte, Gipuzkoan urtero 3,5 milioi eurokoak izan daitezkeenak

Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak-ek eta Donostiako Udalak bat egin dute uraren sektoreko ehunka erakundeekin, “Ez elikatu estoldako munstroa” izena duen sentsibilizazio kanpaina egiteko xedearekin sinatu duten Atxikitze-aitortpenarekin. Helburua da, hiritarrak ohartarazi toallatxo higienikoak komunetik botatzeak eragiten dituen ondorioez eta, aldi berean, ohitura arduratsuagoak sustatzea isurketa horiek saneamendu-sarean eragiten dituzten buxadurak ekiditeko.

Euskadiko ur-erakunde nagusiek (Uraren Euskal Agentzia, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, Txingudiko Zerbitzuak eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak eta Donostiako Udaleko Gune publikoetako zinegotzigoak) hartu dute parte ekimen honetan, *Asociación Española de Abastecimiento de Agua y Saneamiento* (AEAS) erakundeak sustatua izan dena.

Kanpaina honek agerian jarri nahi ditu, komunetik botatzen diren produktuek (batez ere ehuna duten toalla higienikoak), auzokide-elkarteetako hodietan eta udal estolderia zerbitzuetan (ponpaketa-estazioak eta araztegiak barne) eragiten dituzten butxaduren ondorioak: inguruneak eta ekonomikoak. Hona hemen batzuk:

- Añarbe eremuaren antzeko batean (hamar udalerrri eta 315.000 biztanle) urtean **10 kg hondakin jaso daitezke pertsona bakoitzeko**.
- Buxadurek kolektoreak itxi ditzakete edo hondakin-uren ponpaketa-estazioak geldiarazi, eta horrek eragin ditzake **hondakin-uren isurketak ibai edo ubideetara** eta, nola ez, itsasora.
- Toallatxoak komunetik botatzeak **persona bakoitzeko eta urteko 4 eta 6 euro arteko gailak** eragin ditzake sarean mantentze-lanetan; Gipuzkoan, 3,5 milioi euroko gailak izan dezake.

Kanpainaren ardatza da komunaren erabilera arduratsua, eta gogorarazten du toallatxoak eta higiene-produktuak fabrikatzen dituzten enpresek informazio argia eta zehatza eman beharke liekeela kontsumitzaileei produktu horien errefusa-metodoei buruz. Ildo honetan, toallatxoak eta higiene-produktuak argi etiketatutako egon behar dute eta zaborrontzian edo paperontzian bota behar dira. Gogorazi nahi da, orain dela gutxi onetsi dela UNE 149002:2019 Araua, “Komunetik bota daitezkeen produktuen irizpidea”ri buruzkoa.

Publizitate kanpaina

Donostiako Udalak eta Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak-ek ekintza ezberdinak burutuko dituzte datozen asteetan, komunaren erabilera egokia sustatzeko helburuarekin.

Alde batetik, Gune publikoetako zinegotzigoak kanpainaren kartelak jarriko ditu udal eraikinetako sarbide publiko guztietan: kiroldegiak, kultur etxeak, udal bulegoak, antzokiak, etab. Kanpainaren azalpen liburuxkak ere herritarren eskura jarriko dira, saneamendu sarean hondakinek sortutako kalteak nabarmenduz. Era berean, irratian mezu berari buruzko iragarkiak entzungo dira.

Bestalde, Añarbeko Urak-ek Donostiako autobusen kanpoaldean eta Euskotren-en bugetan publizitate hiru aste iraungo duen publizitate kanpaina egingo du.

2017ko buxadura larria

2016. urteaz geroztik, Euskadiko uraren erakunde nagusiak elkartu dira komunaren erabilera egokiari buruz herritarrak kontzientziatzeko jarduketa ezberdinak aurrera eramateko (sentsibilizazio kanpainak, erakusketa ibiltariak, jardunaldiak, eta abar), baina oraindik ere arazoak jarraitzen du, hor dago, adibide gisa, 2017ko irailean Loiolako araztegira ailegatzen diren hiru kolektoreetako batean aurkitu zen buxadura larria.

Gutxi gorabehera 60 tonako masa erraldoi batek 3,5 kilometroko luzera eta 1,60 metroko diametroa duen kolektore bat itxi zuen, alegia Oarsoaldeako (Oiartzun, Lezo, Errenteria eta Pasaia) hondakin-urak Herrerako ponpaketa-estaziotik Loiolako araztegira garraiatzen dituen.

Gertakari hartan, aipatu diren lau udalerrietako hondakin urak zuzenean itsasora desbideratu behar izan ziren (hau da, Loiolako araztegitik igaro gabe), kolektorea irekitzeko behar izan ziren 52 egunetan.

Donostia, 2019ko azaroaren 18a

Hiri-uren zerbitzuen sektoreak bultzatutako “Ez elikatu estoldako munstroa” izena duen sentsibilizazio kanpaina egiteko Atxikitze-aitorpena, komunetik bota ezin diren produktuei buruzkoa

Toallatxo higienikoak eta beste produktu batzuk gure komunetatik botatzeak ondorio oso kaltegarriak dakartza:

- Ingurumen-arazoak hondakin-urak isurtzeagatik, kasu batzuetan, gure ibai eta hondartzetan toallatxoak azaltzen direlarik.
- Buxadurak gure etxeetan eta auzokide-elkarteko hodietan.
- Buxadurak eta kalte handiak azpiegitura publikoetan (estolderiak, ponpaketa-ekipoak eta hondakin-uren araztegietan). Espainiako 300.000 biztanleko hiri batean urtean pertsona bakoitzeko 10 kg hondakin jasotzen dira.
- Eragin ekonomiko nabarmena, estatuan urtean pertsona bakoitzeko 4 eta 6 euro bitartekoa da gainkostua eta mantentze, tratamendu eta hondakin-uren arazketa zerbitzuak %10-15 garestitzen dira. Espainian gainkostua urtean 230 milioi eurokoa dela kalkulatu da.
- Segurtasun eta osasunari dagokionez arriskua izan dezaketen egoeratan jartzen dira “estoldako munstroa” garbitzeko lanetan eta hura desegin behar duten langileak.

Ondorio kaltegarri guzti horiek ekiditeko (ingurumenean, etxeetan, estolderia-sareetako ekipoetan, araztegietan, ekonomian eta sektoreko langileengan), aitortzen hiru sinatzen duten erakunde eta entitateek zera erabakitzen dute:

- Hiri-uren zerbitzuen sektoreak sustatzen duen “Ez elikatu estolderiako munstroa” kanpainarekin bat egitea, 2019ko azaroaren 19an ospatzen den “Komunaren mundu eguna” dela eta.
- Hiritarrak kontzientziatu eta sentsibilizatzeko kanpaina hau bultzatu eta hedatzeko konpromisoa hartzea, bakoitzak bere ahalmenen neurrian eta ahal duen moduan. Sinatzen duen erakunde bakoitzari, horretarako diseinatua izan den agiri bat emango zaio, gomendatzen diren irudiekin.
- Kanpainak ideia batean jarri nahi du arreta, alegia komunetik soilik hiru gauza bota behar direla: pixa, kaka eta komuneko papera (Ingelesez 3P formula esaten zaio *Pee*, *Poo* eta *Toilet Paper*), hau da, UNE 149002:2019 Araua betetzen duten produktuak.

Ildo honetan, toallatxoak eta higiene-produktuak argi eta garbi etiketatuak egon behar dute eta paperontzi edo zaborrontzira bota behar dira. Toallatxoak eta higiene-produktuak fabrikatzen dituzten enpresek informazio argia eman behar die kontsumitzaileei produktu horien errefusa-metodoei buruz.

- Euren lurraldean eragina duten erakundeekin harremanetan jartzeko konpromisoa hartzen dute, kontzientziazte eta sentsibilizatze ekintzetan parte har dezaten, adibidez kanpaina honetan eta arazo honekin zerikusia duten beste batzuetan.